



Ana Alkorta ELAko ordezkaria eta Xabi Labaien Arriaran gasolindegiko langilea. ITZEA URKIZU

Arriarango langileak mobilizazioei ekitea ari dira aztertzen

Duela bi hilabete hasi ziren Tolosako Arriaran gasolindegiko langileak euren lan baldintzak salatzeko protestekin, eta enpresa «entzungorrena» egiten ari dela diote // **2**

«Euskal kultura modernizatzen lan handia egin du Joxe Azurmendik»

HARITZ AZURMENDI
FILOSOFOA


Joxe Azurmendiren lanari buruzko doktoretza tesia defendatu du; Euskal Pentsamenduaren Ur-jauzia kongresua antolatu berri du // **4-5**

Arreta
«espezifikoa»
behar dute
motxiladun
haurrek

Esti Amenabarro EHUko irakasle billabonatarak hezkuntza inklusiboaren ikuspuntutik haur hauen premien inguruko analisia egiten parte hartu du // **3**

Aimar Uson
eskalatzaile
gaztea,
txapelketetan
bidea egiten

Ibartarra azken bi urteetan Espainiako txapeldun izan da, eta Europako eta munduko txapelketetan parte hartu du; orain lesionatuta dago // **7**



Audi Q3 Sportback berria.



Autowag Tolosa
Usabal poligonoa, 2/g
20400 Tolosa
Tel. 943 67 35 81

Audi Q3 Sportback berria : 110-169 KW (150-230 CV). CO2 isurketak (g/km): 150tik 206ra (NEDC: 123tik 174ra). Kontsumoa (l/100 km): 5,9tik 9,1ra.

Arriaran: boikot eskaeratik bestelako ekintzetara

Protesten aurrean, enpresa «entzungorrena egiten» ari dela diote langileek; mobilizazioetan hasia aztertzen ari dira

Itzea Urkizu Arsuaga

Bi hilabete pasatxo dira, Tolosa-ko Arriaran gasolindegiko langileek beren lan egoera salatzeari ekin ziotela. Epe horretan sare sozialak nahiz pankartak baliatu dituzte, beren borroka sozializatu eta enpresan zerbait mugitze-ko, eta Gabonen bueltan plazaratu zuten azken mezua: boikot eskaera egin zieten gasolindegiko erabiltzaileei, enpresa zuzendaritzak haiekin negoziatzera eseri nahi ez zuela-eta. Orain, urte berriarako bestelako ekintzak martxan jartzea aztertzen ari dira ELA sindikatuarekin.

Kudeatzaileak «entzungorrena» egiten duela, hala azpimarratu dute, Xabi Labaien Arriarango ordezkari sindikalak eta Ana Alkorta ELA sindikatuko kideak: «Zoritxarrez, auzi honek luze joko du».

Aurretik ere TOLOSALDEKO ATARIAN azaldu bezala, enpresako hitzarmen propioa lortu nahi

dute Arriarango langileek, beren baldintzak duinak ez direla irizita. Bide horretan, enpresaburuekin izandako bileraren emaitza «barregarria» iruditu zitzaion.

Ana Alkorta azaldu du, soldata igoera eskatu zutela, beste ezer baino lehen: igande eta jai egunetan ere lan eginda, 1.000 euroko soldata dute. Horrez gain, lan erreformaren aurkako blindajea eta lan egutegiari lotutako zenbait artikulua ere jaso zituzten, gasolindegiko arduradunekin esertzeko. «Enpresak gaitasun ekonomikoa baduela ikusita, gure eskaera erabat zilegia dela uste dugu, baina haien erantzuna garbia izan zen: ez dute itun propiorik nahi».

Gasolindegiko zuzendaritzak soldata igoera bat eskaini zien bileran hartan: «Hilero 60 euro gehiago ordaintzeko proposamena egin zigun, betiere, ikuskapen baten menpe; alegia, irizpide subjektibo baten menpe».



Tolosa eta Ibarra artean ezarritako pankarta bat, herritarrei boikota eskatuz. ATARIA

Lehen bilera hartan enpresaren aldetik jasotako proposamena eskatzat jotzearekin batera, Ana Alkorta «joko zikina» ere salatu du: «Enpresak saiakera egin baitzuen, ordezkari sindikala eta sindikatua bera negoziatzio bileran hartatik kanpo uzteko».

EGOERA LEHERTU EGINDA

Familia enpresa bat da Arriaran gasolindegia, eta 1949az geroztik eskaintzen du zerbitzua, Tolosa-ko Larramendi auzoan. Egungo kudeatzaileak hamabost urte daramatza jardun horretan eta, Xabi Labaien langileak azaldu duenez, epealdi horrek ekarri ditu gaur egungo egoerara: «Bada jabearekin 40 urtez lanean aritu, eta erretiroa hartu duen jendea; lehen, bazituzten zenbait hobe-kuntza ekonomiko. Baina, kudeatzaile hau lanean hasi zenean, hobetze horiek desagertu ziren, eta langile asko pasatu dira gasolindegitik. Jendeak alde egiten du, eta hori zerbait gertatzen denaren seinale da».

Gipuzkoako gasolindegiek ba-

dute herrialdeko hitzarmen bat eta, ELAk azaldu duenez, Arriarango arduradunek hitzarmen hori darabilte beren neurriak proposatzeko. Ana Alkorta dio, joan

1.000 euroko soldata igotzea eskatu dute langileek, igande eta jai egunetan lan egiten dutela argudiatuz

den abenduan amaitu zela herrialdeko hitzarmenaren indarraldia, eta beraiek horregatik hasi zirela urrian, lanketarekin. «Arriarango kudeatzaileak hitzarmen hori erabiltzen du bere babeserako, baina hainbat irregularitasun sumatu ditugu».

Batetik, «urtean zazpi edo hamar egutegi aldaketa» egitea eman dute adibidetzat, edo komun garbiketa euren gain hartu beharra. Bestetik, kontuek kodratzen ez badiete, aldea beren soldatatik kentzen dietela ere gaitzetsi dute langileek. «Egutegi aldaketen harira salaketa jarri genion kudeatzaileari, eta zerbait baretu zen egoera, baina berriro itzuli da lehengora, eta horrek leherrarazi du guztia», Labaienen ustez.

«KONBENTZIMENDU OSOZ»

Sare sozialetan nahiz aurrez aurre, herritarren babesa sentitu dute, asteotan, Arriaran gasolindegiko langileek. Boikot eskaera-

ren eragina, berriz, epe ertain-luzera begira neurtu behar dela uste du Xabi Labaienen: «Nik esango nuke lehen ondorio txikiak jasan dituela gasolindegia, baina hori pixkana zabaltzen da, eta ezin da egun batetik bestera nabaritu».

Bitartean, boikot eskaeratik harago joan nahi dute langileek, eta bestelako protesta bideak aztertzen ari dira orain: «Gasolindegia aurrean elkarretaratzek egitea aztertzen ari gara, jendeak ikus gaitzan, eta baita berak ere, egoera deserosoa baita. Prest gaude, eta konbentzimenduz ari gara».

Mobilizazio berriek egoera aldatuko ez balute, grebaren aukerarik ez dute baztertu. Hala Azaldu du Ana Alkorta: «Greba langileen tresna bat da, baina baita azken pausoa ere. Ez dugu greba batera iritsi nahi, iristeagatik, noski. Baina bi hilabete daramatzagu borroka hau sozializatzen, eta ikusten dugu beren aldetik ez dagoela mugimendurik. Ez bada esertzen, greba ez dugu alde batera utziko».

Momentuz, datorren urtarilaren 30eko greba orokorrera batu-ko dira Arriarango langileak. Gero, enpresaren zain jarraituko dutela diote: «Arazo bat daukagu, eta hori ez da ona, ez guretzat, ez kudeatzailearentzat; ezta negoziarentzat ere. Berak dauka konponbidea, eta erraza da: eseri eta hitz egin, ez dago besterik».



IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburrak.eus-en

Hezkuntza inklusiboaren ikuspegitik motxiladun haurren premien inguruko analisia osatu du Esti Amenabarro EHUko irakasle billabonatarrak, Mariam Bilbatua hezkuntza adituarekin batera

Arreta espezifikoa behar dute

Jon Miranda

Gurasoak kartzelan dituzten haur eta nerabeek, hezkuntzaren ikuspegitik arreta behar dute. «Arreta espezifikoa». Hori uste dute, behintzat, Mariam Bilbatua Mondragon Unibertsitateko irakasle ohi eta hezkuntza adituak eta Esti Amenabarro Hezkuntza Zientzietako doktoregai eta EHUko irakasleak. Sare herritarrarentzat lan bat osatu dute ume hauen hezkuntza premien inguruko analisia jasoz. «Hezkuntza teoria eta praktikari buruz gogoetatzen dugu unibertsitatean eta errealtate honi markoa jarri nahi izan diogu ikerlan honekin», aipatu du Amenabarrok.

Hezkuntza inklusiboaren ikuspegia hartu dute oinarri: «Europako testuinguruan hezkuntza berrikuntzarako ardatza da inklusioa, errealtate guztiak aintzat hartzea proposatzen duena. Eskoletan zehazki, eta hezkuntza sisteman oro har, aniztasun handia dago eta ume asko ez diren arren, kualitatiboki esangura du motxiladun haurren errealtateak», esan dute egileek. Sare elkarteak Euskal Herrian 105 motxiladun ume zenbatu ditu, horietako 8 Tolosaldean. Euskal presoan anai-arreba, iloba, lehengusu eta bilobak kontuan hartuz gero, ordean, adin txikiko 1.500 pertsonari eragiten dio errealtate honek; horietako 23 eskualdekoak.

Frantziako eta Espainiako estatuek euskal presoekin daramaten espetze politikak ondorioak



Esti Amenabarro irakaslea eskuinean, Mariam Bilbatua adituaren eta Sareko Inaxio Ormazabalaren alboan. J.C. RUZ / FOKU

ditu haur eta nerabeengan, gurasoekin harreman mugatua izaten baitute. Horri dispertsio politika gehitu behar zaio: bidai luzeak eta neketsuak egin behar izaten dituzte, ordutegi desegokietan. «Ume hauek ezin dira kirol edo aisialdiarekin lotura duten taldeetako kide izan, asteburuko hitzorduetara ezin direlako joan. Urtebetetze festetara ere ezin dira joan, garai horretan errepidean daudelako», dio Amenabarrok.

Gurasoetako bat edo biak kartzelan egoteak umeen garapen afektibo, emozional, kognitibo, sozial eta psikomotorrean eragiten du eta dispertsioak eragin

hori biderkatu egiten du. Ikerlanaren egileek uste dute, gizarteak oro har, eta eskolak bereziki, ezin diola iskin egin errealtate honi, «eskola ikasi eta irakasteko espazioa izateaz harago, alde anitzeko interakzioak gertatzen diren gune sozializatzaila zabala baita».

BALIABIDE FALTA

Motxiladun haur hauetako batzuk espetze barruan bizi izan dute hezkuntza sistemarekin lehenengo harremana, hiru urte bete bitartean, legez, gurasoekin egoteko eskubidea dutelako. Behin adin horretara iritsita, ordean, legediak horrela behartuta

gurasoengandik urrunduta eta kaleari, ohiko ikastetxeetan, jarraitu behar izaten dute eskolatzeko prozesuarekin. Amenabarrok eta Bilbatuak «trantsizio» epe horretan jarri dute arreta eta egoera honetan dauden ikasleekin jardun pedagogikoa garatzeko, material «zehatz eta pertinente» beharra azpimarratu dute.

Lan hau errealtate hori bizi duten haurrekin ari diren irakasleentzat ahotsekin osatu dute. «Haien kezka eta beldurrak jaso ditugu eta guretzat irakaspen ezin egokiagoak dira etorkizuneko proposamenak lantzeko. Eskertuta gaude, haiek jarri gaituztelako benetako ispiluaren eta

beharraren aurrean», azpimarratu du billabonatarrak. Bost eskoletako irakasleak elkarriketatu dituzte, ikuspegi kualitatibotik.

«Ume asko ez diren arren, kualitatiboki esangura du motxiladun haurren errealtateak»

«Eskertuta gaude, irakasleek jarri gaituztelako benetako ispiluaren eta beharren aurrean»

**ESTI AMENABARRO
EHU-KO IRAKASLEA**

Hezkuntza arloko bi ikerlariek aurretik zituzten hipotesiak baieztatu dituzte irakasleekin bildu ondoren: «Esan digute, gehienetan egoerari norbere modura egin behar izan diotela aurre, informazio oso gutxiarekin». Irakasleak ume hauen errealtateari ahalik eta modu zehatz eta sistematikoenean gerturatzeko formazioa beharrezkotzat jo dute hezkuntza arloko adituek. «Baliabideen inguruko planteamendu berriak, hezkuntza eragileekin lan saioak, kontzientziazio lana eta formaziorako esparru berriak sortzeko asmoa adierazi digu Sarek eta Maria-mek eta biok dispozio osoa dugu horretan laguntzeko», aipatu du Amenabarrok. Ikerlanaren amaieran, eskolan erabili daitezkeen zenbait material eta haien erabilera didaktikoak azaldu dituzte, proposamen gisa.

Orain arte irakasleek beren kabuz ume hauek eskolan eroso egoteko gauza «oso inportanteak» egin izan dituztela aipatu dute bi adituek, baina orain hezkuntza arloko eragile eta ardura-dun politikoei neurriak hartzea egokitzen zaiela uste dute: «Hasi besterik ez gara egin, markoa jarri dugu, detektatu ditugu behar batzuk eta zeregin batzuk identifikatu. Orain dagokionak gaiari heldu beharko dio». Gizartearen espetzearen inguruan eraikita dauden estereotipoak aldatu eta beste begirada batetik begiratzeko ikasten hasteko abiapuntua, eskolan dago.

‘MOTXILAK GORA!’ EKITALDIA EGINGO DUTE IGANDEAN

Igandean *Motxilak gora!* ekitaldia egingo da Donostiako Atano pilotalekuan 11:30ean, Xua eta motxiladun haur guztiak gurasoekin etxean egon daitezzen eskatzeko. Ekitaldia Sarek antolatu du Porrotx pailazoarekin batera. Sarrerak aurrez www.sare.eus webgunearen bidez eskuratu daitezke. Aurrez 6

euro balioko dute, eta 8 euro egunean bertan. 0-2 urte artekoek doan izango dute.

Olatz Lasagabasterren eta haren bikotekide Patxi Urangaren alaba da Xua. Picassenteko espetxean daude hirurak, baina Xuak 3 urte beteko ditu igandean eta Usurbilera etorriko da amonarekin bizitzera. Esti Amenabarroren esanetan, «gurasoek zigorraren hiru laurdenak beteta dauzkate eta umearekin Usurbilera etortzeko eskubidea dute; borondate eta ausardia politikoa behar dira horretarako».

Hemendik aurrera 600 kilometro inguru egin beharko ditu Xuak gurasoak ikusteko. Banaketa hori eragozteko eskatzen dute Sarek eta Xua gurasoekin etxera plataformak. «Banaketa benetan gogorra izango da», aipatu dute bi erakundeek. Gipuzkoako Batzar Nagusiek urtarrilaren 8an mozioa onartu zuten EAJk, EH Bilduk, PSEk eta Elkarrekin Podemosek, Xua gurasoekin batera etxera ekartzeko eskatuz. Espetze Zuzendaritzara, Zaintzako Epailearengana eta Espainiako Barne Ministeriora bidali

zuten eskaera baina oraingoz ez da baieztatu erantzunik jaso.

Amenabarroren hitzetan motxiladun haurren hezkuntza premien inguruko analisia momentu egokian dator. «Espetze barruko eskolatik Usurbilgo eskolara Xuak egingo duen trantsizioa, trantsizio egoki bat izateko badaude aukerak». Billabonatarrak pertsonalki ezagutzen ditu Xuaren irakasle izango direnak, eta bere ustetan, «prestatuta eta formatuta» daude, «hezkuntzaren ikuspegi inklusiboa dute».



E. MAIZ

«Joxe Azurmendi nazioa ulertzeko modua da»

HARITZ AZURMENDI FILOSOFOA

Joxe Azurmendiren lanari tiraka eginiko doktoretza tesia defendatu zuen albizturtarrak pasa den udan; Euskal Pentsamenduaren Ur-jauzia izeneko kongresuaren antolaketan aritu da abenduan.

Leyre Carrasco eta Eneritz Maiz Albiztur

Filosofiako gradua burutu ostean, doktoretza tesia egitera animatu eta uztailean aurkeztu zuen. Joxe Azurmendi euskal filosofoaren pentsamenduari buruzko lehen tesia egin du. Joxe Azurmendi Katedraren bueltan dabil, eta buru-belarri aritu zen lanean Euskal Pentsamenduaren Ur-jauzia kongresuarekin.

Bestalde, Udako Euskal Uni-

bertsitateko Filosofia Saileko arduraduna izateaz gain, Galtzaundi euskara taldeko jakintza eta formazio arduraduna ere bada. Egun Alemanian bizi da, bertara joan baita lanera.

Noiz erabaki zenuen filosofia ikastea?

Txikia nintzenean filosofia zer zen ere ez nekien. Behin batxilergoan klaseak hartzen hasi ginean, hor bai erakarri ninduela. Aukeratuko genituzkeen karre-

ten, eta bertan filosofia zegoen baino geologia ere bazegoen. Gogoan dut campus bakoitzera bisitak egiten hasi ginela eta han institutu berdinetik joanda Imanol Artola Felix zegoen. Harekin hizketan aritu nintzen, bisita ere berak egin zigun eta gustatu zitzaidan zegoen giroa. Beraz, une hartan erabaki nuen bertara joan nahi nuela.

Filosofiako ikasketak egin, eta doktorego tesia egitea erabakitzen duzu.

Bai, tartean nik nahiko garbi nuen euskarazko pentsamendua eta gauza gehiago sakondu nahi nituela. Ohartu nintzen UEU-k (Udako Euskal Unibertsitatea) gradu ondoko bat zuela horri buruz eta hor apuntatu nintzen. Astea nahiko libre uzten zidan, zeren astean bitan bakarrik jasotzen nituen klaseak eta nire asmoa Bilbora joan, astean bitan klase horiek hartu eta besteetan nire aldetik sakontzen jarraitzea zen. Zoritxarrez gradu ondoko hori erori egin zen jende gutxi zegoelako, beraz, hor bai, zirt edo zart erabaki behar izan nuen, eta doktoretzako bidean sartu nintzen. Euskal nazionalismoa masterra antzekoa zelako hartu nuen, eta hortik bai pentsatu nuela ikerketa masterra eta tesia egiteko aukera izango nuela.

Joxe Azurmendiren bueltan pasa dituzu urteak. Zer dela eta, edo nolatan aukeratu zen nuen?

Tesiaren sarreran, Joxe Azurmendi lehenengo aldiz ikusi nuen historia kontatzen dut. Fakultateko pasiloen artean nindotan, irakasleen bulegoak dauden lekuan eta Joxe Azurmendi izena ikusi nuen; nire abizen bera zuen bat zegoela konturatu nintzen. Etxera joan nintzen kasualitate hori kontatzera. Aitak esan zidan bere liburu bat zuenaren ustea zuela, eta *Espainolak eta euskaldunak* izeneko libururakin etorri zen. Amak, berriz, hori Txilardegiren laguna zela kontatu zidan eta garai horretatik ezagutzen zuela, Joxe bera ez, baina bere gertukoak bai. *Espainolak eta euskaldunak* 18 urte nituela irakurri nuen. Zuen euskara, idazkera eta jakinduria oso erakargarria egin zitzaizkidan. Horren ostean, bere liburu gehiago irakurtzen saiatu nintzen eta karrerako gai desberdinetan erabiltzen. Joxek nazionalismoaz asko idatzi du, beraz, masterrean ia-ia naturalki lerratu nintzen.

Nor dela esango zenuke Joxe Azurmendi?

Joxe Azurmendi Zegamako semea da. Frantziskotarrekin apai-zetara joan zen Arantzazura, baina batez ere, Arantzazutik hasita euskal kulturaren modernizazioan lan ikaragarritzkoa egin duen pertsona da; bere belaunaldiarekin batera, baita beste jende askorekin ere. Baina, Joxe Azurmendi bertan egon da, ia-ia euskal kulturaren azken 50 urte-tako funtsezko momentu guztietan.

Ezagutzeko aukerarik izan duzu?

Bai, master amaierako lana aukeratu nuenean. Paulo Agirre-

baltzategi ezagutzen zuen amak eta haren bitartez joan ginen hirurok, Paulo, ama eta ni, Joxerengana, eta oso ondo hartu gintuen. Ni bere lanak ikertzeko baimena eskatzera joan nintzen, eta askatasun osoa eman zidan.

Orokorrean, uste duzu euskaldunok ezagutzen dugula Joxe Azurmendi?

Neurri batean bai, esaterako, filosofoak ezagutzen ditugun heinean. Joxe Azurmendi ziurrenik filosofoen artean ezagunetako bat izango da, eta azken urteetan gainera sariak jaso ditu. Baina egia da, fakultatera sartzen diren ikasle gehienek, euskal adarrek, barne, gutxi ezagutzen dutela. Batzuk izenez bakarrik, beste batzuek hori ere ez, baino konparatzen duzunaren arabera da hori. Aresti batekin konparatuz gero, agian, gehiago, eta Unamunorekin edo Ortega y Gassetekin konparatuz gero gutxiago. Besteak beste, batxilergoan Ortega y Gasset aipatzen delako, eta Joxe Azurmendi ez.

Joxe Azurmendiri tiraka adar asko ukitzeko aukera izango zenuen, baina zuk nazioa eta naziogintzari tira diozu zure tesia egiteko.

Bai, nolabait ikerketako eremua murriztu egin behar zen. Gai horrekin masterretik nentorrenez, nazionalismoaren teoria ezberdinak hartu nituen, modu baten landuta nituelako eta horiek Joxe Azurmendirekin konparatu nituen. Nahiko naturala izan zen masterretik Azurmendiren obrarako salto hori.

Zaila da urtetan egin duzun lana laburbiltzea, baina zer pentsamendu dago Joxe Azurmendiren edo zure tesiaren atzean?

Batez ere definitzen dena Joxe Azurmendiren nazioa ulertzeko modua da, eta nazionalismo ikerketetan edo unibertsitate mailako teorien borroka horretan oso antzekoa da nazionalismo kultural deitzen denarekin, izan ere nazionalismo kulturalaren ezaugarriak dira. Ez da nahi-taez estatua helburu, baizik eta komunitatea gaurkotzea, berrindartzea edo erreproduzitzea eta hori batez ere kulturaren bitartez egin nahi izaten da, abertzaletasun kultural horretan.

Euskal gizarte batean kokatu zara edo orokortasun batean?

Tesian zati historikoa dago, naziotasunaz Euskal Herrian azken 50 urteetan zein eztabaida egon diren jasotzen duena. Baina hori Joxe Azurmendiren lana historikoki kokatzeko modu bat zen. Nire ekarpena esan dezagun testuinguru historikoari lotua

doala gehiago, baina Joxe Azurmendiren lana hartu, lan teoriakoa edo pentsamendu mailakoa, eta hori unibertsitate mailako teoria akademikoekin konparatzea izan da. Aspektu historikoa landuta dago, baina salto hori nolabait ematen saiatu naiz; gure arteko eztabaida horietan ere, badagoela pentsamendu bat elkarrizketan jarri daitekeena, munduko beste teoriekin eta beste elkarrizketekin.

50 urte hauetan asko aldatu da gizartearen ikuspegia?

Bai, eztabaidak aldatu egin dira. Esan dezagun, gorabeherak egon direla. Eztabaida nahiko potolo bat egon zen, ezkertiar eta abertzale izan zitekeen edo ez, eta nola lortu sintesi hori, batez ere, 60 eta 70. hamarkadetan piztu zena. Ondoren, 90. hamarkadaren bueltan, 2000. urte horietan badago Azurmendiren obretan argi ikusten den estatua-rikiko kezka bat, nazionalismo edo ez nazionalismo esaten zioten hori, edo konstituzioa eta guzti horri lotuta. Bigarren eztabaida moduko bat ere egon zen, eta gaur egun hirugarrena. Naziotasunari dagokionez, Euskal Herrian badago sentsazio bat, ziklo moduko bat edo halako zerbait amaitu dela, eta bertan itzuli da berriz, euskalduntasunaz eta naziotasunaz errotik pentsatzeko beharra azken urteetan.

Gizartea aldatzen doa, gizarte mugimenduak, baina Joxe Azurmendiren ideiek bizirik jarraitzen dute?

Bai, neurri batean baietz uste dut. Perspektiba historikoa aztertuta nuenean lagundu zidan. Joxe Azurmendi eta hauek, 60. hamarkada horretan euskal kultura erabat krisian topatzen dute, eta hor hainbat hautu hartu behar izan zituzten; hizkuntzaren inguruan, kultura modernizatzearen alde eta beste testuinguru batean egonda ere, kezka eta eginbehar horiek bertan egoten jarraitzen dute. Eta neurri batean, Azurmendik 50 urteetan zehar sortu duen pentsamendua kezka horietatik abiatuta egin du. Beraz, nik uste dut nahiko positiboa dela oraindik ere Azurmendi irakurtzea, eta urte luzetan izango da. Alde batetik, kezka oso gaurkoak direlako, ia hasi zireneko berberak direlako, eta bestetik, Azurmendik gaitasun ikaragarria daukalako Europako tradizio filosofikoa elkarrizketan jartzeko, eta zuri gorputzean gertatzen zaizun edozein amorru eta gutxiespen sentsazioarekin.

Joxe Azurmendi: Euskal pentsamenduaren ur-jauzia kon-

gresua egin zenuten abenduan. Bertan, antolaketa lanetan aritu zinen.

Bai, bi gauza desberdin behar dira. Bat Joxe Azurmendi katedra edo esaten duguna da, eta bestea, katedra horren barruan izan zen lehenengo ekintza publiko handia, kongresua bera. Eta hori aipatu dudana sentsazio horretatik sortu zen, hau da, bi gauza sortu ziren. Joxe Azurmendiren inguruko pentsamendu sendo bat dago, baina bere belaunaldiaren inguruan, beraz filosofia gradua egiten dutenen artean ez da ezagutzen, ikasleen artean eta irakasleen artean ere nekez. Orduan, hasi ginen Joxe Azurmendi katedra sortzeko proiektu horrekin eta gero, irailetik abendura bitarteko hilabeteetan kongresuarekin buru belarri ibili ginen lanean.

Zer lortu nahi zenuten?

Joxe Azurmendiren aitzakian edo landu dituen gai-ideien aitzakian, kultura mahaian, pentsamendu mahaian eta politika mahaian euskaraz pentsatu eta jarduten duten pertsonen komunitate batekin elkartzea. Jendeak sentitzea Joxe Azurmendiren lanetatik, belaunaldi horren lanetatik, ados egon edo ez, zer aprobetxatu handia daukala. Iruditzen zait Joxe Azurmendik konkretuki idazten duenean, horretarako aukera ematen duela. Gauza bat da berarekin ados egotea edo ez, eta bestea irakurtzen zoazen heinean, erakusten dizkizun bide desberdinak dira. Kongresuak euskarazko pentsamendu horren inguruan jende desberdina elkartzea lortzea arrakasta da.

Behin igaro denean zein balantze egin duzue kongresuaz?

Alde batetik nekatuta eta lan gogorra izan zen, lan askorekin ibili ginelako bai aurretik eta bai izan zen egunetan. Baina egia esan, egiten dugun balorazioa oso positiboa da. Jende asko ibili zen. Uste baino jendea gehiago. Guk hasieran ez genuen pentsatzen hainbeste jende etorriko zenik. Nik uste dut gaiak bazuela mami, eta jendea gogoarekin zegoela. Kanpotik jaso ditugun mezu guztiak onak izan dira, eta jendeak nahi zituen gaiak ukitu genituen alde batetik ez bada bestetik; hori izan zela uste dut kongresuaren puntu garrantzitsua. Prestatzerako garaian ikusten genuen zerbait sendoa aterako zela, eta horregatik izan zuen horrelako oihartzuna kongresuak. Nahita atera genuen unibertsitate, eta kultur ekitaldi bat izan zen.

95 kaleargi eta zortzi koadro elektriko berrituko dituzte

Amezketako Udalak argiteria publikoa eraginkorragoa izateko aldaketak egingo ditu, eta horretarako diru laguntza lortu du



Ugartetik hasi eta herrian goraka joango dira lanak egiten Eliz kalean bukatzeko; 95 kaleargi berri jarriko dituzte. E. MAIZ

E. Maiz Amezketak

Amezketako Udalak herriko argiteria publikoa eraginkorragoa izateko politikari bultzada bat eman nahi dio, eta oraingoan, Ugarte auzoan, Bartolome Deuna kalean, Zumadi eskolara doan bidean eta Eliz kalean 95 kaleargi ordezkatzeko ditu. Horrez gain, herriko zortzi koadro elektriko ere eguneratuko ditu hurrengo asteetan.

«Egungo farolak LED teknologiadunak dira, baina urte batzuk dituzte eta ez dira egungo LEDak bezain eraginkorrak, eta ez dute behar adina argi ematen», azaldu dute udaletik. «Amezketako Udalak, bere garaian, aitzindari izan zen LED teknologiako argiteria jartzen udalerrian, baina LED argien bilakaera izugarria izan da azken urteotan eta egungo hobekuntza nabarmenak dituzte», gaineratu dute.

Udaletik argitu dutenez, kaleargiak duela hiru urte Bartolome Deuna kaleko zati batean jarri zituzten mota berekoak izango dira.

Guzti hori kontuan hartu du Amezketako Udalak, eta aste honetan hasi dira argiteria publikoa berritzeko lanekin. Ugarte auzotik hasiko dira ordezkatzeko egiten, eta zehazki koadro elektrikoak ordezkatzeko hasi dira. Lanen ardura Eibarreko Electricidad Cuadra enpresak izango du jakitera eman dutenez.

edo tramiteak luze joan dira», azpimarratu dute.

HIRU HILABETEKOKO LANAK

Lanak burutzeko epea hiru hilabetekoa izango dela aurreikusi dute, eta udalak egingo duen inbertsioa 152.702 eurokoa izango da, BEZa barne.

Amezketako Udalak, berriztatze lan hauetarako diru laguntza lortu du, hain zuzen ere, Espainako Gobernuak IDAE erakundearen bitartez, Eskualde Garapenerako Europako Funtsatik (EGEF-FEDER). «Lanak 2019an burutu nahi ziren, baina lehiaketa publikoaren izapide

edo tramiteak luze joan dira», azpimarratu dute.

Esku hartze honekin, «herriko argiteria publikoaren berriztatze-ari bultzada garrantzitsua eman go zaio», diote, eta hurrengo urteetan, geratzen diren eremuak berritzen joango direla azaldu du udalak: «Bizpahiru urteetan guztiak berrituta geratu arte».

Udalaren esanetan, «berriztatze honek zuzenean eguneratze teknologikoa, energia elektrikoaren kontsumoaren gutxitzea, atmosferara CO2aren igorpena gutxitzea eta mantenu kostuen gutxitze nabarmena dakartza, hau da, eraginkorragoa, jasangarriagoa eta merkeagoa da, eta argi kalitate hobea du».



Kudeatzaile berriak «mimoz» hartu du Lizartzako Ostatura

Abenduaren 24tik Irama Egurrolak darama Lizartzako Ostatuaren martxa; pintxoak, menuak, ogitartekoak eta plater konbinatuak eskaintzen ditu

Iraiti Saizar Artola Lizartza

Gabon egunean pintxo-potearekin ekin zion etapa berriari Irama Egurrolak. Bilbotarra izatez, Lizartzan bizi da egun eta Ostaturako kudeaketaren ardura hartu berri du. Etapa berria «ilusioz eta gogo handiz» hasi duela dio.

Aurreko kudeatzaileek abenduaren 20an itxi zituzten ateak, eta ordurako Lizartzako Udalak egina zuen kudeatzaile berriaren esleipena. Hiru hautagai aurkeztu ziren eta kontratazio mahaiak Egurrolak aurkeztutako proposamena esleitu zuen. Ateak itxi eta lau egun beranduago ekin zion proiektu berriari: «Ez da tarte luzez egon itxita, eta jendeak ez du tabernaren falta handiegirik sumatu», dio Egurrolak. Bide batez, Lizartzako Udalak, eskerrik eman nahi dizkie aurreko kudeatzaileei «azken urteetan egindako lanagatik».

Egun seinalatuan ireki zituen ateak, eta Gabonak «jende askorekin» pasa dituztela dio. Ikusitakoarekin eta egindakoarekin, momentuz, «oso pozik eta gustura» dagoela esan du: «Lizartzarrek badute ohitura tabernara sartu-irtenen bat egiteko; poteatzera edo kafea hartzera maiz etortzen dira». Herritarrak «jartortzat» ditu, eta pixkana jendea «hobeto ezagutzen» ari dela dio.

Esperientzia du Egurrolak ostalaritzan. Hogeitaz inguru daramatza mundu horretan lanean, eta «mimoz» lan egiteari



Irama Egurrola, Lizartzako Ostaturako barran, eguneroko pintxoetako batzuk aurrean dituela. I. SAIZAR

ematen dio garrantzia: «Bezeroa zaintzea gustatzen zaigu, zaintze hori zainetan daramagu dagoeneko». Zerbitzari lanetan aritzen da Egurrola bera Ostaturan, eta sukaldari batek laguntzen dio pintxo eta otorduak prestatzen. Asteburuetan, ordea, zerbitzari batek laguntzen die zerbitzua osatzen.

Herrian zegoen beste taberna, Joxe Mari ostatura, duela gutxi itxi dute urteak zabalik egon ondoren. Gaur gaurkoz, beraz, taberna zerbitzua eskaintzen duen lokal bakarra dago zabalik herrian. Beraz, ostatura «herritarren bilgune» izango den leku bat izatea nahi du Egurrolak. «Garrantzitsua da guretzat herritarrek

leku fisiko bat izatea elkartu eta denbora tarte bat elkarrekin pasa ahal izateko».

ESKANTZA ZABALA

Egunero-egunero 09:30ean zabalitzen du taberna. Egun guztian zehar irekita egoten da eta azaldu duenez, ez du itxierarako ordu finkorik: «Normalean, jendeak alde egiten duenean itxentzen dute». Asteko jai eguna asteartetan izaten dute.

Goizetan, ireki bezain pronto, pintxoak ateratzen ditu barra gainera. «Pintxoetatik txorizo egosiak eta tortilla patatak dute arrakasta gehien», dio. Gainerakoan, lanegunetan eguneko menua izaten du eguerdietan, eta

ogitarteko eta plater konbinatuak ere eskaintzen ditu. Astebururako menu berezia prestatzen du, eta ostiral gauetik hasten da eskaintza horrekin. Jantoki zabaldu dute otorduak egiteko: 25 lagun ingururentzat adina leku dago.

Sukalde «tradizionala» dutela dio kudeatzaileak, «betikoa». «Horrek funtzionatu egiten duela ikusi dugu, eta horrekin jarraituko dugu».

Irekiera egunean pintxo-potearekin hasi ziren, eta ostegunero gauza bera egiteko asmoa dute. Gaur arratsaldean, beraz, pintxo-poteaz gozatzeko aukera izango du ostatura bertaratzen denak.

Prestaketa lanetan ari dira Alurr dantza taldearen 25. urteurrenerako

Ekainaren 5ean Alurr Eguna ospatzearekin batera ospatuko dute taldearen mende laurdeneko urteurrena

I.S.A. Ibarra

Urteurrena ospatzeko ekitaldiak prestatzen hasiak dira Alurr dantza taldeko kideak. Hogeita bost urte beteko ditu taldeak aurretik, eta ekitaldi bereziena ekainaren 5ean egingo dute. Alurr Eguna aprobetxatuko dute, oraingo dantzari guztiak elkartzea da asmo nagusia: «Emanaldirako ongi prestatzea baino, elkartzea, ondo pasatzea eta gure garaiak gogoratuz dantza pare bat prestatzea da helburu nagusia».

Dagoeneko, hasiak dituzte entseguak dantzari ohiek: asteartetan edota asteazkenetan elkartzen dira. Alurren parte izan diren dantzari guztiak elkartzea da asmo nagusia: «Emanaldirako ongi prestatzea baino, elkartzea, ondo pasatzea eta gure garaiak gogoratuz dantza pare bat prestatzea da helburu nagusia».

EKITALDIGEHIAGO

Bestalde, urtarilaren 31n emanaldia eskainiko du Alurr dantza taldeak Uzturpeko kultur astearen barruan. Aurtengo saioan Alurren historia kontatzen saiatuko dira, eta dantzaz gain antzerkia ikusteko aukera ere eskainiko dute. Horrez gain, otsailaren 7an, Pirritx, Porrotx eta Marimototsek *Bizi Dantza* ikuskizuna eskainiko dute Belabieta kiroldegian, 18:30ean. Sarrerak salgai daude Lurdes liburu-dendan, Errotatxon, Zubiaurren, Ogi Berrin, Goxobin eta Tolosako Asteasuarran, 7 euroren truke.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Aimar Uson, hatzetatik zintzilik

Eskalatzaile ibartar gaztea emaitza nabarmenak lortzen ari da txapelketetan; hiru hilabete geldirik egon behar du orain lesio batengatik, eta irrikaz dago berriro ere hormak igotzen hasteko


Imanol Garcia Landa Ibarra

Txikitatik hasi zen Aimar Uson ibartarra eskaladaren munduan. Bere aitaren bitartez murgildu zen mundu horretan, eta zortzi urte zituela ikusi zuen txapelketetan maila onean aritu zitekeela. «Marokora joan ginen bidaia batean, eta 6a zailtasuna duen bide bat egin nuen bertan. Horrek motibatu ninduen entrenatzen hasi eta ahal bezain eskalatzaile ona izateko», azaldu du Uson.

Aurten hamasei urte beteko ditu eskalatzaile gazteak. 2018an hasi zen txapelketetan parte hartzen, eta besteak beste, Espainiako Txapelketa irabaztea lortu zuen bere adinean. Iaz ezin izan zuen parte hartu Espainiakoan, lesio bat tarteko, baina Europako eta Munduko txapelketetan lehiatu ahal izan zuen.

Hain justu, lesioa osatzeko orain gutxi ebakuntza egin diote Bilbon, eta orain berreskuratzen ari da. «Entrenamenduan izan nuen lesioa. Eskalatzen ari nintzela, mugimendu batean mina sumatu nuen eta segituan jaitsi nintzen», ekarri du gogora Uson. «Gero, Espainiako selekzioarako probak prestatzen ari nintzen, eta fisioterapeutak esan zidan lasai aritzeko, baina ni dena ematen saiatu nintzen, eta azkenean hatza guztiz izorratu nuen». Ezker eskuko erdiko hatzaren lotailuak hautsi zituen, eta hezurrean pitzadura txiki bat egin zuen.

Lesioa osatzeko hiru hilabete eskalatu gabe egon beharko du ibartarrak. Bitartean korrika eta



Aimar Uson, Tarragonako Margalef eskalada eskolan, 'Sativa Patatica' 8a zailtasuna duen bidean. TERESA SAGASTE

bestelako ariketa fisikoak egiten ariko da, baina hormak ukitu gabe. «Berez, orain da garaia harkaitzean lasai eskalatzen ibiltzeko, gozatzen, baina denboraldi garai honetan txapelketarik ez dagoenez, orain zen unerik egokiena ebakuntza egiteko». Osatu eta gero ahal duen azkarren berreskuratu nahi du bere maila, Espainiako selekzioaren zailtasuneko probetara aurkezteko. Berriro Europako eta Munduko Txapelketara joateko, beharrezkoa da Espainiako selekzioetik aukeratua izatea. Gainera,

aurten 18 urte azpiko mailan lehiatu beharko du. «Maila horretan gazteena izango naiz, eta aurten emaitza onak lortzea zailagoa izango da».

HIRU MODALITATE

Txapelketetan hiru modalitateetan lehiatzen dira: abiadura, blokea eta zailtasuna. Abiaduran, 15 metroko horma bat, beti zailtasun berdina duena, ahal den azkarren igo behar da. «Mundu mailan bost segundotan igotzen dute azkarrenek, eta nik bederratziz segundotan lortuta daukat»,

azaldu du Uson. Blokeko modalitatea boulderraren berdina da. Sokarik gabe eskalatzen da, eta metro gutxiago izaten dituzte. «Txapelketetan zortzi bat bloke izaten dira eta gehienak egiten dituenak irabazten du. Zailtasun ezberdinekoak izaten dira, eta tartean bloke etzanak izaten dira, oso fisikoak, niretzako ez direnak hain egokiak, ez dudalako fisiko handirik. Hobeto aritzen naiz horma teknikoetan». Zailtasunekoan, sokarekin egiten da eskalada, eta 20 eta 25 metro arteko bideak izaten dira. «Niri gehien gustatzen zaidan modalitatea da», zehaztu du ibartarrak.

Txapelketak rokodromoetan egiten dira, eta Uson astean zehar Azpeitira eta Aretxabaletara joan ohi da, eta asteburuetan Nafarroara edota Frantziara. «Euskal Herriarekin alderatuta, Europen azpiegitura askoz hobeagoak dituzte rokodromoei dagokionez. Frantzian eta Austrian, esaterako, askoz prestatuagoak daude goi mailako lehiaketarako», azaldu du.

Harkaitzean eskalatzea da gehien gustatzen zaiona Usoni, «mendian egotea, lagunekin eskalatzea, gozatzea». Aurreko udan lortu zuen orain arte kateatutako bide zailena. «Hiru aste-buru libratzea lortu genuen eta harkaitzetara ihes egin genuen, lehiaketatik deskonektatzeko. Begiratu nahi nuen ea nire marka gaingitu ahal nuen, eta Gaubean (Araba) 8b gradu bidea egin nuen, laugarren saiakeran. Hurrengo egunean, 8a mailako bidea kateatu nuen bistaz».

EMAITZAK

2018

Espainiako Txapelketa. Kadete mailan, 14-16 urte artekoan, abiaduraren proban lehen postua, zailtasunaren bigarren, eta blokearen laugarren. Sailkapen orokorrean (overall) lehen postua.

Espainiako Kopa. Zailtasun modalitatean hiru probetan parte hartu zuen, lehenengoan bosgarren postua lortuz eta beste bietan hirugarrena eskuratu. Sailkapen orokorrean hirugarren izan zen.

Euskadiko Txapelketa. Abiaduran lehen postua, zailtasunaren bigarren eta blokearen lehen postua. Sailkapen orokorrean, lehen postua.

2019

Espainiako Kopa. Hirutik bi probetan parte hartu zuen zailtasun modalitatean, seigarren eta bigarren postuak lortuz. Orokorrean seigarren postua eskuratu zuen.

Euskadiko Txapelketa. Bloke modalitatean parte hartu zuen, hirugarren postua lortuz.

Europako Txapelketa. Bloke modalitatean, Portugalen 20. postua eta Austrian 33. postua lortu zuen. Zailtasunaren, Suitzan 23., Frantzian 21. eta Austrian 19. postua.

Munduko Txapelketa. Zailtasunaren, Italian, bi bide egin zituen, horietako batean 11. eta bestean 44. bukatuz; orokorrean, 32. postua.

Usonen helburuetako bat egunen batean 9a mailako bide bat kateatzea da. Hori bai, pausoz pauso joango da, eta aurten 8c mailako bide bat kateatu nahiko luke. Etxaurin (Nafarroa) saiaturako da lehen helburu hori lortzen.

Lanean gogor jarraitu behar dugu

G abonetako oporrak atzean utzita, errutina bueltatzeko garaia zen. Nahiz eta hiru errege magoak dagoeneko pasa ziren, gure talderako oparitxo bat utzi zuten: Ene-ritz Itxaso geure taldera igoko zela jakinarazi ziguten. Burua asteburuko partidaren jarraitu genuen

eta bigarren buelta hastearekin batera hiru puntuak Tolosara ekarri behar genituela argi genuen azken postuetatik ateratzeko. Larunbatean Itaroa Uharteren zelaian jokatzeko genuen, eta beraz, 15:30ak aldera abiatu ginen autobusean harantz. Gogotsu geunden, baina beste alde batetik urduritasuna nabari zen.

Partidari dagokionez, puntu bakarra lortu genuen, 0-0 amaitu baitzen norgehiagoka. Aurkariak oso atzean sartu ziren eta ezin izan genuen markagailua mugitu. Gainera, ez zen gure partidari onena izan eta sentsazio ez oso onekin bueltatu ginen Tolosara.

Orain, egindako akatsak zu-

zendu behar ditugu, eta gelditzen diren partidetan irabazi egingo dugula pentsatu. Ziur nago salbatu egingo garela, baina horretarako gogor lan egin beharra dago. Nik talde zoragarri honetan konfiantza osoa dut eta zuek ere izan dezazuen nahi dut. Beraz, anima zaitezte larunbatean, 16:30ean, Berazubira etortzen, Osasuna talde handiaren aurka jokatzeko dugu eta. Zuen animoak beharrezkoak izango dira!

Animo neskak! Aupa Tolosa!



Aulkitik

Helene Arruebarrena

Tolosa CF, 1. Maila Nazionala



OSTEGUNA, 2020KO URTARRILAK 16
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



OSTEGUNA 16

AGENDA

Erakusketak

Amezketak. Amezketakantari, 19:00etan hasita.
Berastegi. Alnauteriak antolatzen bilerak, udaletxean, 19:30etan.
Ibarra. Nola lagundu haurrari irakur-zale izaten? ikastaroa, Imanol Merceroekin, guraso eta senideentzako, Kultur etxean, 18:00etan.
Ikaztegieta. Udazken-neguko ekitaldien balorazioa eta urteari begira-ko plangintza hitz egiteko bilerak, udaletxean, 18:00etan.
Tolosa. El traidor filma, 19:15ean eta 21:45ean, Leidorren.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Iker Ibarluzearen eguraldi iragarpena, agenda, Kulturari begira, kale kantoitik Ainhoa Mendiluze, Baserritik eta amaitzeko eskualdeko musikari batek eginiko proposamen musikala.
11:00. Eutsi Goiari. Kirolak Imanol Garcia Landarekin.
12:00. Entzuteko jaioak. Musika.
16:00. Zebraidea. Arroza sareko magazina.
18:00. Goizeko saioen onena.
21:00. Mestibull. Musika DJ Bulekin.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko
16:30. Ur eta lur
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko
21:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Urrutiajunbe
22:30. Ajoarrieroa
23:30. Gaurkoan Tolosaldeko

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. Edurne Mujika Martinez. Euskal Herria kalea, 3. 943 67 09 15.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Amaroitz auzoa, 9. 943 67 51 18.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Hego-haizeak berriz ere indarra hartuko du eta horrekin tenperatura maximoak igo egingo dira, eguneko erdiko orduetan 17-19 gradu bitartean joz goia. Zeruan, orduak aurrera egin ahala, hodeiak ugaritzen joango dira, egun amaierarako zerua erabat estalirik utziz. Hala ere, ez da euririk espero, azken orduak arte.

Bihar. Negu-ukituko giroa. Goizaldean sartuko den fronte batek hodeitza handia eta euri zaparradak utziko dizkigu. Arratsaldean aldiz, zaparradak ahulagoak eta tartekatukoak izango dira. Haizeak mendebaldetik joko du eta tenperaturak nabarmen jaitsiko dira, maximoak 8-10 gradu bitartean errendituz. Elur-mailak behera egin eta egunean zehar 900-1.000 metroan kkatuko da.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.



'(H)ARI NAIZELA' 'HITZETIK HORTZERA'-N

Imanol Artola Felix-en irratsaioa grabatzen izan dira *Hitzetik Hortzera* saioko kideak, eta horrela, *(H)ari Naizela* bertsolaritza irratsaioa nola egiten den erakutsiko dute telebistaz. *Hitzetik Hortzera*-ko Eider Perez aurkezleak elkarrizketatu du Felix, eta aldi berean, *(H)ari Naizela*-ko gidariak Perezi egin dio elkarrizketa. «Elkar elkarrizketa izan da», azaldu du Felix-ek. *Hitzetik Hortzera* igandeetan izaten da ETB 1ean, 15:00etatik aurrera, eta urtarrilaren 26ko saioan izango da ikusgai aste honetan grabatu dutena. *(H)ari Naizela*, berriz, asteazkenetan eta igandetan, 20:00etan eta 14:00etan izaten da entzungai *Ataria Irratia*-n, eta urtarrilaren 29an eta otsailaren 2an emango du Felix-ek aste honetakoa. ASIERIMAZ

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

943 65 56 95
-
ataria@ataria.eus
San Esteban 20

Atarikideentzat bi sarrera ditugu

DELTECO GIPUZKOA BASKET - COVIRAN GRANADA

partida ikusteko

Urtarrilak 19, 12:00etan, Jose Antonio Gasca pabiloian.

Ataria bertso jaialdirako bi sarrera pare

urtarrilak 18, 18:00etan, Leidorren.

Zozketetan parte hartzeko Osteguna 13:00ak arte: 943 65 56 95 edo www.ataria.eus

LEGORRETA KO

FERRI ANTZOKIA

2020 NEGUA

URTARRILAK 10 OSTIRALA	AFRIKA	
URTARRILAK 19 IGANDEA	AGUR ETXEBESTE! Filma + egileekin solasaldia	
URTARRILAK 25 LARUNBATA	JOSEBA IRAZOKI eta lagunak + Xabi San Sebastian	
OTSAILAK 14 OSTIRALA	SUA + RODEO	
MARTXOAK 6 OSTIRALA	SKAKEITAN	
MARTXOAK 22 IGANDEA	ÑAKO bakarrizketa	
APIRILAK 3 OSTIRALA	ODOLKIAK ORDAINETAN + UNIDAD ALAVESA	

Antolatzailea:

Laguntzaileak:

www.legorreta.eus

Legorretako Herri Antzokia
@Legorretantzokia